



Astekaria



elgoi

AIRE LIBREKO ZINEA

20.000 ikusle



LARRANAGA autoeskola

Gazte txartelarekin %10eko BEHERAPENA izena ematean



Santa Ana II. 74 10 11 - ELGOIBAR

OLAIZAGA KIROLDEGIA

Giro aproposa eta profesionala

INSTALAZIOAK



FRONTOIA-KANTXA
SQUASH-A
FRONTOI TXIKIA
IGERILEKUA
GIMNASIOA
MUSKULAZIO GELA
TABERNA-JATETXEA
ROKODROMOA
SOLARIUM-TERRAZA

IKASTAROAK

IGERIKETA
IGERIKETA ESKOLA
KARATE (umeak)
KARATE (helduak)
AEROBIC-a
MANTENU GIMNASIA
GIMNASIA EGOKITUA
SHEE-IVE Ferako prestakuntza
MUSKULAZIOA
AQUAEROBIC-a
MASAIA
DEFENTSA PERTSONALA



*ikastaroak
martxan daude!*

SAUNA ETA MASAIA

SAUNA
MASAIA OROKORRA
MASAIA LOKALIZATUA
MASAIA DEPORTIBOA
MASAIA TERAPEUTIKOA



UVA IZPIAK
HIDROMASAIA
AURPEGI MASAIA
AURPEGI GARBIKETA

kirolzale guztien zerbitzura

GARBITASUNA ETA KALITATEA

95-96 MATRIKULA ZABALIK

ATE IREKIAK 18tik 24ra



elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi, Izaskun Elizburu.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maitte Rementeria.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maitte Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Korta, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maitte Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Nork-Nori-Zer eta BLA-BLA-BLA

Buruarekin Harria jo edo Harriareakin burua jo, beti burua kolpatua, beraz, beti burua kaltetua”. Hasier Etxeberriaren idazlan batean irakurri nuen esaera zahar hau. Esaera hau irakurri bezain laster, Euskal Herrian dugun egoera datorkit burura. Hamaika kolpe hartu ditu herri honetako jendeak historian zehar. Gure denboretan ere bide berdintsua darماغula deritzot.

Euskaldunok zintzo, zuzen, jator, umil, langile eta barrabildun fama eman izan diogu geure buruari. Baina hamaika kolpe, negar eta miseria jasotzeko balio izan digula uste dut. Frankoren diktadura deusezteko, herri honetako jendea izan zen abanguardian eta ekintza arrisksuenetan ibili zena. Faxismoari kolpe handienak eman zizkiona baina, baita ere, kolpe gehien eta odoltsuenak jaso zituen. Hainbat familiantan jo zuen atea heriotzak eta negarrak. Euskal Herria antolatzeke garaian iritsi dira beste kontuak, urte askotako ametsa esku artean ikustean, alegia. Gasteizko Gobernu Autonomoak gehiengo abertzale alderdi bat agintean, ezker alderdi bat legebiltzarrean, beste abertzale mugimendua legebiltzarretik at... Egoera ezin hobea zirudien. Lehendabiziko Eusko Jaurlaritza, baina laster hasten gara BLA-BLA-BLA.

Euskal Herriak ez daki irabazle bezala jokatzeko, ez gara irabazleak, beldurra ematen digu aginteak. Nahiago dugu errudunak topatu, bai PSOE, PP, Madril, Brusela eta abar. Beraz, gehiengo batek ematen duen autoritateaz baliatzea baino nahiago dugu


BLA-BLA-BLA. Euskal Autonomi Elkarte, Estatu osoko industri-ingurune inportanteena izatetik langabezia tasa altuenetarikoa izatera pasa da. Hemen izan zen langile borroka, inon baino bortitzagoa eta ondorioak inon baino okerragoak. Kapitala (madrarikatua ala bedeinkatua?) azeria oilotegitik bezain zuhur joan zen izkuta-tzen, dozenaka lantegi itxiaraziz, milaka lanpostu galduz. Ondorioak: Herria kolpatua, langileria kaltetua eta gero BLA-BLA-BLA.

Lantoki bat isten den bakoitzean entzuten dira zenbait iluminaturen ahotsak: “Enpresa gizonen kapazitate eza”, “Enpresa ikuspegi motela”, “Teknikari atzertuak”, “Inbertsiorik eza” eta abar. Baina ondorioa: Herria kolpatua, langileria kaltetua eta BLA-BLA-BLA. Enpresa gizon banaka batzuek izan duten kapazitateagatik, ausardiagatik edo zorteagatik lantegi indartsu eta lanpostu tinko batzuek sortuz doaz. Kontuz! Bestela zulora. Hau ere herriaren izenean? Agian, baina errealtatean lanpostuak galduz kasu gehienetan, beraz, herria kolpatua, langileria kaltetua eta gero, BLA-BLA-BLA.

Nik, errealtate eta etorkizun latza nabari dut Euskal Herriko lanpostu urritze progresiboa ikusirik. Benetan, sentitzen dut honelako idazlan triste eta makurra idaztea. Errazagoa dugu, ni neu barne, Nork-Nori-Zer exigitzea eta BLA-BLA-BLA jardutea errealtate krudelari aurpegia ematea baino.

Felix Arrizabalaga

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Plaza Handian labainduta jausi zen emakume batek zera galdetzen dio Udalari:

“Ez al duzue zerbait egiteko asmorik hau dela eta?”

Hirigintza teknikariarekin jarri gara harremanetan eta berak esan digunez ez dago ezer egiteko proiektu edo asmorik.



KEXAK

Bi kexa jaso ditugu aste honetan:

- Abuztuan Elgoibarren gelditu beharra izan duen pertsona batek deitu digu, Mintxeta eta Polikiroldegia hilabete horretan istea ez zaiola zuzena iruditzen esateko. Berez gogorra bada abuztua Elgoibarren pasatzea, kirolerako-aisialdirako bi toki hauek itxita edukiz gero, aspertzeko aukerak nabarmen igotzen omen dira. Bukatzeko, herrian geratzen den jendearekin atentzio piska bat izatea eskatu nahi dio Udalari.

- Seme-alabak eskola adinean dituen ama bat kexatu da Udal Liburutegia itxita dagoelako arratsalde hil honen 18ra arte. Haurrak eskolan hasita daude eta etxekolanak ere badauzkate dagoeneko. Beraz, Liburutegiak arratsaldean ere irekita egon beharko lukeela uste du.

ESKUTITZAK

Bernardo Ecenarro S.A. Aski da!!

Bernardo Ecenarro enpresak San Lorenzo errekarekiko errespeturik ez duela jakina da, honez gero hainbat aldiz kutsatu du eta. Baina erreka udaletxearen onespenerekin hondatzea erabat onartezina da.

Oraingoan, aparkaleku bat egiteko erreka ertzeko 50 bat metro deuseztu ditu, harrandi eta porlanezko horma handi bat eraikiz.

Argi daukagu zer suposatzen duen udaletxe honentzat Natura zaintzeak. Nork eman du baimena eraikuntza hau egiteko? Noiz arte onartuko ditugu horrelako astakeriak?

J.A.

(Sallobenteko auzotar bat)



TXALOK


Norber Arizaga zoriondu nahi dugu Artetxeko haur eta nagusiok une politak pasa ditugulako berari esker. Besteak beste, udako ekintzen artean bere pantaila txikian aire libreko zien emanaldiak ere izan ditugu. Aupa Artetxe!

OHARRA

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Edozein kezka, iritzi, galdera... adierazteko aukera duzue bertan.

Eskutitzak ez dira 20 lerro makinaz baino luzeagoak izango. Era berean, idazten duenaren izen-abizenak, telefono zenbakia eta NANA izan beharko ditu. Argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inizialak bakarrik ager daitezke.

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua atal honetako kolaboratzaile finaden **Maite Vallejok** laga digu. Bere esanetan erretratukoak Elgoibarko “Grupo Artístico” antzeztaldea osatzen zutenak dira. 1954. urtean Donostian aktuazioa izan ondoren bazkaltzera joan omen ziren eta han ateratako erretratua dugu gaurkoa. Lana fin egiten zutela aitortu digu baina bestelakoei ere ez omen zieten bizkarra

ematen: jan eta edan, jai giroan ibili, lagunartean jardun... azken finean, ondo pasatzen asmatzen zutela esan digu.

Ikus dezagun zeintzuk diren mahai bueltako artistak. Ezkerretik hasita:

Tomás García (†), Pako Juaristi (†), Miren Vallejo, Manolo Rementería, Mari Karmen Elortza, Anjel Iriondo, Claudia Lezea, José Zubiaurre, Itziar Ajuria, Maria Angeles Kortabitarte, Mari Sol Gurrutxaga eta Patxi Lizarralde.



PRIMITIVO MARTINEZ GOMEZ en sendiak, hilaren 16 an, larunbata, arratsaldeko 7etan San Bartolome elizan izango den LEHENENGO URTE-MEZARA gonbitea luzatzen dizue. Aurrez eskerrak bertara etorriko zaretan lagun eta ezagun



Punta batetik bestera

Port-Aventura, Kuba, Vietnam, Austria, Suitza... Hauek ezezik beste herrialde eta toki asko ere badaude ikusteko. Batzuek lan egiteko aprobetxatzen dituzte oporrak, beste batzuek mendira joateko, ba dira turismoa egiteko aukera hartzen dutenak bai eta hondartza ondoko hotel batetan erlaxatzeko ere. Era batera edo bestera, astebete, hamabost egun

edo hilabete, bakoitzaren gogoen eta poltsikoen arabera, hor zehar joan eta bestelako tokiak ikusteak egunerokotasunetik ateratzen eta "deskonektatzen" laguntzen dute. Buelta gogorra egiten dela? Beharbada, baina gogorragoa egiten zaie oporrik izan ez eta lanean jarraitu behar dutenei. Hona hemen hainbat elgoibartarrek egiten dituzten bost plan. Zuk zein aukeratuko zenuke?



- **Kubara abentura bila.** - Bai. Kubara jutia erabaki gendun gure kontura, abioia hartu eta abentura bila.

- **Eta?** - Oso-oso ondo. La Habanan taxista bat kontratau gendun gurekin ibiltzeko islan. Oso inpresionantia da dana, paisajia, jendia...

- **Lo egiteko arazorik?** - Ez. Jendiak bere etxia eskaintzen dizu lo eiteko. Behin, igual 300 urte zitxuan ohe estu batian egin naban lo.

- **Zerk harritu zaitu gehien?** - Benetan ikusgarrixa zan jendiak zelan itxen daban dantza ikustia. Toki guztietan, hondartzan, uretan, kalia...

- **Salsa dantzatzen ikasi zenuen, beraz.**

- Zeoze bai. Halare, diskoteketan ipintzen daben

musikatik %20a bakarrik da salsa beste guztixa musika disko.

- **Jan duzuen gauzarik bitxiena?** - Kokodrilu buztana, oso ona da.

- **Asko gastatu al duzue?** - Pasada bat.

Baina behin jun ezkerro, dana nahi dozu ikustia eta, pagau ein bihar da. Merke ibil-tzia nahi badozu ezin dozu dantza ein, ezin dozu biajau, ezin dozu jendiakin kontaktau, ze inbitatzeko eskatzen dizue, ezin dozu buzeau...

- **Zer ekarri duzu handik?** - Tipo batek eskuz gure aurrian egin zizkigun 25 puro ekarri ditxu eta ixa maleta osua laga dot han. Jendiak edo zer ematia asko eskertzen

dizu.
- **Motza egin zaizu?**
- Oso motza, hasieran oso fuertia itxen da bueltia. Egun osuan nao handik ekarri naban salsa zinta bat entzuten. Ahal dote-nian, berriz nixe.

- **Hiru mutil zineten. Ligatuko zenuen, ez?** - Pasada bat. Neskak gainera botatzen jatzuz, ezin ditxuzu gainetik kendu. Aukeran daude, hemen ezin laike holakorik imajinau. Eta ez pentsau mutilak bakarrik geundenik, abioian gurekin neska asko jun zian.

- **Agentzia baten bidez joan zineten, ez?** - Bai, beti ibili izan gara horrela. Atzerrira joateko askoz erosoagoa da bidaia, hotela eta ibilbide guztiak zehaztuta edukitzea.

- **Non ibili zarete?** - Estraburgoko hotel batetan egon ginen eta handik mugitzen ginen. Luxenburgoko, Selva Negra, Alsazia eta Suitza ikusi genituen.

- **Autobusean ordu asko, ez?** - Bai, baina niretzat oporrak turismoa egiteko dira, ez "veraneatzeko". Kostan eta hondartzan egon izan naiz baina nahiago dut herrialde ezberdinak ezagutzea.

- **Anekdotarik?** - Behin ia-ia jatetxe batean platerak fregatu behar izan genituen. Jan eta gero kontua ikustean konturatu ginen ez geneukala nahikoa diru.



Eskerrak franko frantsesak onartu zizkiguten!

- **Datorren urtean?** - Aurten gure asmoa Irlandara joatea zen baina bidaia gutxi zeuden eta oso garestiak. Ea datorren urtean...

*Arantza Opakoa
Vietnam*

- **Zergatik Vietnam?** - Lagun batek proposatu zidan eta aspalditik neukanez ideia ekialdera joateko...

- **Zuen kontura joan zineten, ez?** - Bai, hegazkina hartu eta motxila bizkarrean punta batetik bestera ibili ginen sei astetan zehar.

- **Zerekin egin zenuten topo?** - Harrigarriena bertako biztanleen inozentzia da. Beraien kuriositatea. Ez daude oso ohituak turistak ikustera eta dena iruditzen zaie bitxia. Gertutik ikusi nahi zaituzte, ukitu... Gure begi biribilak politak iruditzen zaizkie... Askok sufritu duten arren, oso alaiak dira.

- **Kosta eta mendia. Biak ezagutu dituzue.** - Bai. Kriston hondartzak daude baina beroa izugarria da. Mendian, aldiz, etnia pila bat daude, oraindik beraien ohiturak mantentzen dituztenak, jatzera... Oso interesgarria da dena.

- **Susturen bat ere izan zenuten.** - Bai. Mendian geundela, lurjausiz bat izan zen eta jeep barruan ataskatuta geratu ginen. Eskerrak gidaria oso ona zen eta nola edo hala irten ginen.

- **Janari arrarorik?** - Txakurra asko jaten da, baina nik ez naban probatu. Sugian likore bat edan naban, zer zan jakin gabe.

- **Joan aurretik zenbat txerto?** - Tifoidea, malaria, tetanoa... Koleraren aurkakoa hartzeko ere esan ziguten baina...

- **Zer ekarri duzu handik?** - Seda pila bat, oso merkea dago eta.

- **Datorren urtean?** - Ertamerika gustauko jatan.

- **Bi familia joan zarete elkarrekin.** - Bai. Mendira juteko asmua geneukan eta danak batera jutia erabaki gendun. Gizonak Mont-Blanc

a eitxia nahi badebe jun daitezela bixak, hobe izango da.

- **Plana aldatu zen, beraz.** - Bai, mendi asuntua laga eta turismua itxia pentsatu gendun. Suizara jun ginan, Austrian ere ibili ginan, Veneciaraino ailegatu ginan...

- **Kilometro asko, ez?** - 4.000 inguru egin ditugu. Alde batera eta bestera kotxiakin.

- **Garestia atera al zaizue?** - Etxeko janarixa jan dogu, geuk preparatzen genduan. Ez gina restaurantietara juten jatera, baina Suiza oso karua da. Arraultza dozena batek 700 pta. balixo zaban.

eitxeko ilusua zaken eta hara jun ginan danak, bederatzi lagun danera, lau nagusi eta bost ume.

- **Lortu al zuten gailurra?** - Ez zian abantatu ere ez egin zen egualdi txarra zauan. Gainera, familixan juterakuan plana diferentia da, askoz lotura haundixaua da. Hurrenguan Mont-Blanc-

*Mila eta Begoña
Frantzia, Austria, Suiza eta Italia kanpingean*



*Maria Luisa Martin
Port Aventura*

- **Tarragonara joan zineten eguzki bila, ez?** - Bai. Azkenengo momentuan erabaki genduaneta 10 egunetarako, trankil trankil eguzkixa hartu eta deskantsatzeko jun ginan Deltara.

- **Halere, azken egunean...**

- Bai. Behin hara jun ezker ezin ginan bueltatu Port-Aventura ezagutu gabe.

- **Eta?** - Zoragarria. Umiek oso ondo pasatuko dabe baina nagusientzako ere dago preparatuta.

- **Egun oso bat egin zenuten?**

- Bai, baina hurrenguan bi egunetarako juteko asmua dakat. Egun batian barraketan ibiltzeko eta bestian han egoten diazen aktuzio

guztiak ikusteko, "Teatro azteca", "Rodeo"...

- **Barraka guztietan ibili al zineten?** - Danetan! Kolan igual ordu oso bat egon bihar zinan zain baina merezi zaban. Barre mordo bat eitzen dozu, batez ere uretako barraketan.

- **Eta Dragon-Khan famatua?**

- Pasada bat. Lau bider buruz behera geratzen zera! Baina oso motza da, pare bat minutu edo.

- **Gehien gustatu zitzaizuen?**

- Polinesia, oso ezberdina da. Bazkaltzera Mexikora joan ginen. Ezin da imajinatu ere egin zelako ondo dauan preparatuta, jangelia Plaza Haundixa baino haundixaua zan!

Hizkuntza bat ikasten atzerrian

Ingalaterran egonaldi bat pasa ondoren Elgoibarrera etorri berria naiz eta hemen daramatzadan bi asteak nahikoak izan dira atzerrira doan gazte kopurua asko handitu dela konturatzeko. Entzuten diren arrazioen artean denetik aurki daitezkeen arren, lan mundurako ondo prestatzea da arrazoi nagusienetakoa.

Azken urteotan enpresek eta euren estrategia komertzialak izan duten bilakaera dela eta, atzerriko hizkuntzak ikasteko boom izugarria sortu da, eta honi aurre egiteko aukera ezberdin asko aurki ditzakegu. Udako ikastaroak ikasle gazteentzat, enpresa-gizonentzako ikastaro trinkoak, familietan egonaldiak etab., norberaren behar eta aukerei egokitutakoak.

Pertsona guztiak diferenteak garelako, batek ontzat jotzen duena besteak estimatzen ez duelako, nork bere aukera egin beharko luke, hau da, hobeto egokitzen zaiona hautatu. Hala ere, nire esperientzian oinarrituta, funtsezkoa deritzodan zerbait aipatuko dut: atzerrira joan aurretik hango hizkuntzaren oinarritzko ezagutza izatea. Funtsezko lau gauza jakitea lagungarri izango zaigu eguneroko jardunean, konfidantza hartu ahala gure kabuz moldatzeko

gai izan arte.

Argi dago esperientzia berriek izutu egiten gaituztela, batez ere, etxekoei eta lagunei agur esan behar diegun lehen aldia bada. Hala ere, ezin ahaztu zure egoera berdinean dagoen jende askorekin topo egiten duzula eta horrek ikaragarri laguntzen duela.

Dudarik ez dago oso esperientzia aberasgarria izan dela. Nire buruari berriro joango nintzatekeen galdetzen diodanean, ez da nigan zalantza izpirik sortzen "bai noski!" erantzutean.



SILBIA URIGOITIA ZABALETA


**JATETXEA
ETA
TABERNA**
P. Muguruza 8. ☎ 74 06 21

JOSE ANGEL ZABALA
URDAITEGIA
Berezitasunak:
Bakilaua
Merkatu Plaza 33-34

MIREN
arraindegia

Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR

ARAZOAK ZURE AHOTSAREKIN?
Hitzegiteko: landu zure ahotsa!
.....
Polipoek, noduloek, ahotsaren erabilera okerrak, etab...
ERAGINDAKO RONKERAK
ANGELA ZABALETA AIZPITARTE
DEITU ☎ 74 15 56


PEDRO PEREZ BERISTAIN
San Roke, 30 behe. ☎ 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEA - BERRITZATZEAK - BERTSULAK - BERRITZATZEAK - BERRITZATZEAK - BERRITZATZEAK


OIERKI IGONGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segiduan
konponduko dizugu igongailua
☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR


Kafetegia

Joan al zara inoiz atzerrira hizkuntzak ikastera?



NEREA URANGA

19 urte, ikaslea

Ez, baina gerora begira beharbada joango naiz. Lehen frantsesa ikasten nuen, baina orain ingelesa ikasiko nuke eta norabaitera joatekotan, Irlandara.



ANDER BARRENETXEA

15 urte, ikaslea

Ez, ez dot sekula biharrik sentidu. Hala ere, ikasi nahiko banu, ingelesa adibidez, Inglaterrara jungo nitzake. Baina ez daukat asmorik.



GORKA MUNOZ

20 urte, langabetua

Ez, ez dut aukerarik izan eta interes handirik ere ez daukat. Etxetik urruti eta hizkuntza ez dakizun leku batean egoteak, "paloa" ematen dit.



VANESA MATEOS

17 urte, ikaslea

Ez, hizkuntzak eskatzen ez dituzten ikasketak egin behar ditut. Halere, hizkuntzak ikasteko erarik onena atzerrira joatea da.



BEGO MARTIN

23 urte, administraria

Lau urte daramatzat Irlandan. Hasieran au-pair eta gero lana topatu nuen. Oso gustura nago. Hizkuntza ezezik, kultura ere ezagutzen duzu.



MIREN MORENO

23 urte, ikaslea


Bai, udan Noruegan izan naiz granja batian beste neska batzuekin. Berrero ere juteko asmua dakat inglesa ikasteko, baina beste toki batera, Londresera.

**ASESORIA
COOP**

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR



■ Hilaren 26an hasiko da ikasturtea Institutuan

1995/96 ikasturtearen aurkezpena hil honen 26an izango da Herriko Institutuan. Ikastetxeko zuzendaritzak bidalitako oharren arabera, lehen aldiz hasten diren ikasleentzat saio bereziak izango dira hilaren 25ean eta 26an, bai eta berdin ikasle horien gurasoentzat ere. Zuzendaritzak ikasle guztiei eskutitz bat bidaliko die laster etxera guzti honen berri ematen.

■ Urrirako ikastaroen matrikula zabalik

Urriaren 2tik eta 3tik aurrera Olaizaga kiroldegian burutuko diren gimnasia egokitua, igeriketa eta zazpi urtetik beherakoentzako karate ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago. Ikastaro hauetan ezezik martxan dauden beste ikastaroetan ere matrikula egiteko aukera badago.

■ Kilometroak 95'eko ekitaldiak Donostian

Urriaren Iean Donostiako Herri Ametsa eta Zurriola ikastolek antolatuta, Kilometroak 95' ekitaldiaren inguruan hainbat ekintzaizango dira irailean zehar. Hil honen 23an, Takolo, Pirrotx eta Porrutx pailazoekin haur jaialdia izango da Anoetan. Pailazoekin batera Ordiziako haur talde batek kantatuko du.

■ Maite Gurrutxagak ez du erakusketarik egingo

Kultur Zerbitzutik aditzera eman digutenez, gaurtik aurrera, hilak 15, Maite Gurrutxagak egin behar zuen pintura erakusketa bertan behera geratu da. Arrazoi pertsonalak medio pintoreak ez du erakusketa prestatzeko aukerarik izan. Hortaz, Kultur Etxeko erakuskelan izango den hurrengo erakusketa Gorbeiar buruzkoa izango da, urriaren 6tik aurrera.

129 ikaslek hasi dute ikasturte berria Gestio Eskolan

Erreminta Makinaren Institutuan kokatzen den Gestio Eskolak 95-96 ikasturteari hasiera ofiziala eman zion astelehenean. 129 ikasle izango ditu aurten Gestio Eskolak, hiru ikasturtetan banatuak. Lehen promozioiko ikasle taldeak 96/97 ikasturtean amaituko ditu gestio-gintzako ikasketak, hiru ikasturte eta proiektuaburutu eta gero.

Ikasturtearen aurkezpen ekitaldian Guillermo Garate alkatea eta DEBEGESAko lehendakaria dena, Iñaki Arriola Eibarko alkatea, Javier Retegi Industria Sailburua eta Jose Mari Ulazia Eskolako zuzendaria izan ziren. "Escuela de Gestión" aldizkari-txostenaren lehen zenbakiaren berri eman zuten

ekitaldian Ulaziak. Eskolari buruzko datuak eta informazioa, elkarrizketak, pertsona ezagunen idatziak eta ikasleen kolaborazioak biltzen ditu argitalpenak. Gestio Eskolaren bultzatzaile izan diren erakundeek opari bana jaso zuten. Erakundeak Tekniker, Industria Sails, Aldundia, Lankide Aurrezki Kutxa, L.K.S., Adeg, Iberdrola, Gipuzkoako Bazkundera, Eroski eta Kutxa dira. Eskolako zuzendariaren aldetik aipamen berezia merezi izan zuen DEBEGESA erakundeak eskolaren alde egindako guztiagatik. Javier Retegi Industria Saileko sailburuaren hitzaldiarekin amaitu zen ikasturte hasiera ofizialaren ekitaldia.



■ Marrazketa artistiko ikastaroa irailean

Egur tailerrak marrazketa ikastaroa emango du hilaren 18tik urriaren 5era bitartean. Ikastaroaren ordutegia arratsaldeko 6etatik 8etara bitartekoa izango da. Interesdunek Egurren egoitzan, (Ubitarte Plaza z/g) lehen Ikastola zenean eman dezakete izena arratsaldeko 6etatik 8ak bitartean.

■ Helduen hezkuntzarako matrikula epea zabalik

Elgoibarko Helduen Heziketarako ikasturte berrirako matrikula zabalik dago jadanik. Bi maila izango dira aurten: alfabetizazioa eta Eskola Graduatua. Izena emateko Pedro Muguruzako ikastetxera zuzendu behar da arratsaldeko 5etatik 7etara bitartean.

Laugarren Komiki Lehiaketa antolatu du Kokoek

Elgoibarko Komiki Lehiaketaren laugarren edizioaren oinarriak kaleratu berri ditu Kokoek Komiki Elkartek. Bakarka zein taldeka, gai librean eta zuri beltzean, lanek orijinalak izan beharko dute. Formatoak 18x24 zm izango ditu eta euskaraz zein gaztelaniaz idatz daitezke. Komikiak aurkezteko azken eguna urriaren 21a da. Lanak Kultur Zerbitzuan laga behar dira. Lehiaketaren irabazleak 90.000 pta.ko saria jasoko du, bigarren sailkatuarentzat 60.000 pta.ko saria dago eta hirugarrenak 30.000 pta.ko saria irabaziko du. Hamazortzi urtetik beherako

komikilari onenarentzat 20.000 pta.ko akzesita egongo da. Edozein datu edo argibide jasotzeko 74 43 44 zenbakira dei daiteke.

Fanzinea salgai

Kokoek Elkartek "Kok Art" izeneko fanzinearen bigarren zenbakia, uztailari dagokiona, salgai dauka 100 pta.ren truke. Zenbaki honetan Antxon Alvarez, Iban Barrenetxea, Enrike Arkauz, Irene Ormazabal, Alvaro Espiga, Iñaki Raigoso, Mikel Cornejo, Alberto García eta Jesús Tadeoren lanak agertzen dira.



Joxin Arregi, San Bartolome parrokiako apaiza izan dena Eibarko San Andres elizako parroko izendatu zuten uztailan. Joxinek asteburu honetan hartuko du Eibarko San Andres parrokiako elizarduren kargua. 37 urteko azpeitiar honek hainbat urte eman zituen Errenderin Elgoibarrera etorri aurretik eta dagoeneko bi urte t´erdi egin ditu gure herrian. Eibarko parrokian Elgoibarren bezain harrera ona izan dezan opa diogu.

HBk San Bartolome jaien balorazioa egin du

Herri Batasunak San Bartolome jaien egitaraua prestatzerakoan, PNVk zenbait alderdi politiko eta herriko kirol eta kultur taldeak baztertu izana salatu du. "Aurten ezezik, beste urte askotan ere gertatu izan da gauza bera eta honen erantzule zuzena Kultura Batzordeko lehendakari izandako eta orain alkatere den Guillermo Garate jauna da". Era berean, gauetan Plaza Handian antolatutako dantzaldietan oso jendegutxi ibili dela eta, kezkatu azaldu dira HBko kideak. Gazteriarentzat Udalak prestatutako egitaraua ere "kaxkarra" izan da, txoznak protagonista bihurtu direlarik. HBk eta Gestorek antolatutako ekitaldietan, Ikurriñaren omenaldia, manifestazioa eta presoek omenaldia kasu, "jendearen partaidetza handia izan da". Era berean, Orue eta Garateren jarrera salatu dute, "gune askatuan argi-indarra erabiltzeko baimena ez ematea jokabide infantila izateaz gain, probokazioa dela deritzogu, PNVko kideen helburua kaltetuen amorrua piztea baitzen. HBk txoznen jokabidea txalotzen dute "Orue eta Garateren probokazioei muzin egiten jakin izan zutelako".

Zebra bideak

Udaltzaingotik jakinarazi digutenez, kanpaina bat hasiera doaz zebra bideak errespetatu daitezke. Zebra bideak oinezkoentzat segurtasun pasalekuak dira, kotxe gidariak errespetatu egin behar dituzte eta zebra bidean pertsonaren bat zain badago gelditu egin behar dira. Zoritxarrez jendeak ez du errespetatzen eta kasurik egin gabe pasatzen da, oinezkoa kotxea pasa arte zain egon behar izaten delarik. Honi guztiari irtenbidea bat topatu asmoz, udaltzainak eskoletako sarrera eta irteera orduetan hainbat puntutan egongo dira. Hala nola, Bernardo Ezenarro kaleko zebra bidean, karakol parekoan eta Urasandin.

Esmeralda Zapparoli:

"Euskadin argazkilaritza eta moda lantzeke daude"

Aste hauetan Kultur Etxera urreatu den edonork argazki bitxi batzuekin egingo zuen topo. Jende askoren ahotan entzun da galdera bera, "pertsonak al dira?". New York-en, Bartzelonan eta bestelako hirietan, dendaz denda ibili eta gero, Esmeralda Zapparolik manikiei ateratako argazki sorta bat dago

ikusgai bihar arte. Esmeralda orain 24 urte jaio zen Londresen. Italiatik Bartzelonara joan zen eta gaur egun Elgoibarren bizi da. Moda eta publizitatea ditu gustuko eta mundu horiek isladatzen ditu berak ondo baino hobeto erabiltzen duen arma baten bidez. Argazki

- Txikitatik bizi izan duzu argazkilaritza, ez?

- Bai. Nire aitak argazki laborategi bat zeukan eta oso txikia nintzela sartu nintzen saltsa hartan. 12 urte nituenean demaseko montaje bat egin nuen ispilu batekin, sonbreru batekin... Argazkia ateratzera nindoanean amona agertu zen ea zertan nenbilen galdezka. Garbi neukan argazkilaria izan nahi nuela.

- Zer da argazkilaritza?

- Argazkilaria ezberdinak dauden neurrian argazkilaritza bera ere era batekoa edo bestekoa izango da. Nik, batetik nere kontura egiten ditudan argazkiak ditut, hor sormena lantzen dut. Bestetik, norbaitentzat egin behar dudana dago eta kasu horretan eskatzen didatena egin behar dut.

- Modaren mundua duzu gustukoen, ez?

- Ezertan zentratu baino lehen denetik eza-gutzea komeni da. Niri moda eta publizitatea asko gustatzen zaizkit. Publizitatea ikasi dut, modelo bezala ere aritu izan naiz... Oso garrantzitsua da atera behar duzuna ondo ezagutzea



"Edozein pertsona kamara aurrean, argazkilaria aurrean eroso badago, argazkia ondo aterako da"

eta horretarako onena bizi da.

- Non dago argazki on baten sekretua?

- Ez dago sekreturik bat. Gauza askok eragiten dute, mementuak, egunak, pertsonak edo objektuak, materialak... Gauza guzti horien artean sortzen den magian dago sekretua.

- Hori da, beraz, fotogenia?

- Edozein pertsona kamara aurrean, eroso badago, argazkia ondo

aterako da.

- Askok bidaiatzen duzu.

- Bai. Argazkilaritzak edozein tokitan lan egitea dakar, New York-en, Bahametan... Argazkilaritzak ez dauka nazionalitate jakin bat, unibertsal da. Edo, beste era batera esanda, norbera unibertsal izan behar da argazkilaritza bere osotasunean ezagutzeko.

- Eta zer moduz Elgoibarren?

- Hona etortzerakoan

banekien zerekin egingo nuen topo. Lan egiteko hiriak gustatzen zaizkit baina bizitzeko herri baten lasaitasuna asko eskertzen da.

- Nori atera nahi zenioke argazki bat?

- Niri gehien gustatzen zaidana, edozein pertsonari izkutuan duen zerbait berezi hori ateratzea da. Pertsona horrek argazkia begiratzean zerbait berezia ikustea.

- Manikiei buruzko erakusketa egin duzu.

- Bai, ez zen aurrez pentsatua neukan zerbait. Moda egitea oso zaila da gauza asko behar baitira, modeloak, makilatzaileak, estilistak... Manikiak ikusi eta benetan gustukoak nituela konturatu nintzen eta haiekin hasi nintzen lanean. Harrera ona izan dute. Oriñaltasuna aipatu dit jende askok.

- Ba al darabilzu zerbait esku artean?

- Euskal Herrian moda eta argazkilaritza oso gutxi landu dira. Nire asmoa estudio bat mu nta-tzea da, moda eta publizitatearen bidetik argazkilaritza jorratuko lukeen estudio bat. Gauza asko egin daitezke mundu horretan.

Txiki **BARREN**

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 16. GEHIGARRIA



Bukatu dira. Joan dira. Akabo oporrak. Eta hasi da berriz ere. Kurtso berriari ekin diogu, dagoeneko. Bi hilabetetan hutsik egon diren ikasgelak haurren garrasiz eta irakasleen lekzioez bete dira. Lehenengo astea nahikoa arina izan da, hori bai. Txokea derrepentean gogorregia izan ez dadin, hasierako egunetan goizez bakarrik joan behar izan dute haurrek eskolara. Eta BARRENEko kamarak txintxo-txintxo aurkitu ditu. Oraingo honetan, irailari ongi etorria emateko Herri Eskolan izan gara eta bertan informatika non eta nola ikasten duten jakin dugu. Badirudi garai berri batean sartuak garela bete-betean eta informatikari gogor heldu behar diogula. Atzetik datozenek behintzat ondo baino hobeto prestatuak begiratuko diote datorkienari.

txikitxistea

- Aurrezten ari naizen diruarekin -esaten du zoro batek-, motorra erosiko dut.
- Nik -esaten dio lagunak-, behia erosiko dut.
- Barregarri egongo zara behi gainean errepidean lasterka.
- Eta zu, motorrari esnea jeisten hasten zarenean!



Jakitunen eskutik

Zer suposatzen du bi urteko haur batentzat eskolan hasteak?


A din honen ezaugarri nagusia familiaren eragin garrantzitsua da. Familiaren eta eskolaren arteko harremanak oso estuak izan behar dira umeak elkarren artean ahalik eta hobeto ezagutzeko. Garai honetan gertatzen diren aldaketek ezaugarri nabarmenak dituzte: ibiltzen hastea, ahozko lengoaiaren hastapena, esfinterren kontrola, garbitasunaren eta ordenaren inguruan ohitura sinpleak hartzea, inguruko pertsona, objektu eta espazioen bereizketa, helduekiko menpekotasuna murriztea, harreman berriak egitea etab.



MARIA PILAR ALONSO
ESKOLAURREKO IRAKASLEA

Haurrek ahozko mintzaira eskuratzea ez da berehala eta automatikoki gertatzen, pertsona helduekin (gurasoak, irakasleak) eta lagunekin elkarrekintzan eta komunikabidean lortzen dute.

Psikomotrizitatea, lateralitatea, erritmoa etab. menperatzen joaten dira jolasen bidez gelan egotea atsegina izan dadin.



Ze iritzi daukazuhoroskopoa.....ri buruz?



Nik ez dut inesten gaur horietan. Adibidez, zu Aries bazara, zuri eta Aries diren beste gurtiei ez gaitzue gaur berbera gertatuho.

IZASKUN RODRIGUEZ. 13 urte



Niretzat horoskopoa denak txorakeriak dira Tauro izan ezik.

AITOR IDUETA. 11 urte



Horoskopoa polita da eta horoskopoiari eker denek dakite zer gertatzen den.

SHEILA NOVOA. 8 urte



L&kg Att wcdct tpc
7 wt vg

Galde debalde

- 1- Nora bidaiatuko zenuke denboran?
- 2- Nagusi izan nahi al duzu?
- 3- Zein lehiaketatan parte hartu nahi zenuke?
- 4- Zein hilabete kenduko zenuke egutegitik?
- 5- Zer ez dizute uzten egiten?
- 6- Zipi ala Zape?
- 7- Zer nahi zenuke jaso opari bezala?
- 8- Bokadiloa ala pastela?
- 9- Bainua ala dutxa?



M&gnMw d
8 wt vg

- 1- 6 urte nitxuan garaira, orduan jolastu eta barre bakarrik itxen naban.
- 2- Ez, preokupazio asko izaten dialako.
- 3- "El juego de la oca"n.
- 4- Iraila, oporrak eta gero eskolan hasten geralako.
- 5- Klasian gaudela eskutitzak bidaltzia lagunei.
- 6- Zipi.
- 7- Ordenagailu bat, jolasteko eta lanak eitzeko.
- 8- Pastela, bolluak.
- 9- Bainu bat espuma askokin eta lasai-lasai.

- 1- Prehistoriara, koban bizi, sua egin eta animaliak ehizatzeke.
- 2- Bai, umiak eukitzeko.
- 3- "El juego de la oca"n.
- 4- Bat ere ez, danak gustatzen jataz.
- 5- Balkoiko barandilaren onduan saltatzen ez die lagatzen, ez jausteko.
- 6- Ez dakit zeintzuk dian.
- 7- Ferrari gorri bat.
- 8- Pastela, "bollicao" bat.
- 9- Bainu bat, Ninja dortokekin jolasian ibiltzeko.

Zer da... *inbidia*.....?

ZAIDA ZANGUITU 9 wt vg



"Beste baten gauza bat gustatzen bazaizu batzutan inbidia pasatzen duzu."

MIDEN BEITIA 14 wt vg



"Pertsona batek beste batengatik duen sentimendu jeloskorra."

ANTON ECENARDO 10 wt vg



"Neretzat inbidia tontakeria da, ze zure gauzeekin ondo konformatu behar duzu."

ITSASO GARITAGOITIA 7 wt vg



"Gauzak kentzea eta gauzak estropeatzea."

ANDER GOIKOETXEA 14 wt vg



"Beste batek zuk ez duzun zerbait duenean sentitzen duzun amorrua."

D&SID&LOPEZ 7 wt vg



"Norbaitek globo bat edo baloi bat eramaten badu inbidia ematen digu."

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nor da elgoibartar hau?



2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



MANUEL PEREZ
12 urte
 Janaria eramango nuke eta toaila bat bainatu eta gero sikatzeko eta gero hondartzan etzan eta eguzkia hartzeko. Telefono bat ere eramango nuke, telepizzara deitzeko eta aspertuko banintz etxera deitzeko nere bila joan zitezen, bueltatzeko.


AITOR
ARRUABARRENA
7 urte
 Jolasteko gauzak eramango nitxuzke, baloi bat eta kanasta bat saskibaloian ibiltzeko, barko txiki bat, gizon txiki bat jolasteko eta itsasontzi haun di bat aspertutakuan bueltatzeko.



3. Asmakizunak:

- Zer ote da, zer? Uda haseran dago, negu bukaeran ere bai. Zer da?.....
- Eraztun berezia ez da urrezkoa baizik tintazkoa. Hutsa balio du ezkerrean, milioiak eskuinean. Zer da?.....
- Beti lehorrean eta beti bustia. Zer da?.....

4. Zein bide jarraitu behar du ipotzak kometaraino heltzeko?



1. Aitor Zabala 2. Zer eramango zenuke iria bakarti batera? 3. U hizkia, 0 zenbakia, mingaina 4. 2 bidea.

Victoria Iraegi

Masajista



- **Zenbat denbora daramazu lan honetan?** ▶ 3 urte.
- **Zenbat orduz egiten duzu lan?**
 - ▶ Gutxi gora-behera sei ordu egunero.
- **Zenbat masaia hartu behar dira sendatzeko?**
 - ▶ Oso erlatiboa da, arazoaren eta pertsonaren arabera gehiago edo gutxiago izaten dira. Dena dela, giharreak gogortuta egonez gero, laugarren sesiorako sendatzen da.
- **Zein arazorekin joaten zaizu jendea?**
 - ▶ Tendinitisarekin, zartadurekin eta giharre gogortuekin.
- **Zenbat balio du masaia bat hartzeak?**
 - ▶ Nik 3.000 pta. kobratzen dut.
- **Indarra ala esku ona behar da?**
 - ▶ Esku ona eta batez ere eskua non jarri behar den jakitea.
- **Zer nahiago duzu, masaia hartzea ala ematea?**
 - ▶ Masaiaren arabera. Erlaxatzeko masaia bada hartzea, halere badaude mingarriak diren masaiak.
- **Eman duzun masaiarik luzeena?** ▶ Ordu t'erdikoa.
- **Nori emango zenioke masaia bat gustura?** ▶ Giharre masa biguna duenari eta oso lodia ez dagoenari edo benetan beharra daukan edonori.
- **Gorputzeko zein atal duzu gogokoen?** ▶ Bizkarra.
- **Lanetik kanpo nori ematen dizkiozu masaiak?** ▶ Badakizu zer dioen esaerak, "Errementariaren etxean makilezko ganibeta".
- **Non egon zara oporretan?** ▶ Aurten oraindik ez dut oporrik hartu.
- **Postal asko jaso al dituzu?** ▶ Bi.
- **Telebista ala irratia?** ▶ Berdin zait. Irratia gutxi entzuten dut eta telebista goizean eta gauean ikusten dut piska bat.
- **Eragiten al du gaztetan kirola egiteak?** ▶ Bai, kirola egin duenaren eta ez duenaren gorputzak oso ezberdinak dira.
- **Zaletasunik?** ▶ Zinea, mendia eta sukaldaritza.
- **Zein ordutan jaikitzen zara goizean?** ▶ 8 t'erdia 9ak aldera.
- **Siestarik?** ▶ Ez.
- **Noiz joan zinen azken aldiz ileapaindegira?** ▶ Duela bi hilabete.
- **Zer aldatuko zenuke Elgoibartik?** ▶ Gune berdeak jarriko nituzke. Birika berde bat falta zaio, ez baitago bat ere ez.

MAITE IRIONDO

SAN BARTOLOME FERIA

DOINUA:

Aizak hi mutil mainontzi

San Bartolome ferian
baserritar egunian
zer alaitasun ta ikuskizun
zegoen herrian.
Soinu pandero hotsian
kaleak alaitutzian
trikitilari eskolakuak
bapo portau zian.

Gero ganadu sariak
herriak zitun jarriak
zuri beltz marroi eta gorriska
oso dotoriak
albaiteruen begiak
neurtzen atze eta aurriak
baserritarrak ondo kostata
ditu irabaziak.




DANIEL LEGORBURU



**ZALDUA
ITURGINTZA**

**GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK**

Urasandi 26. Tel: 74 05 30



15 milioiko aurrekontua izan dute jaiek

1995eko San Bartolome jaien aurrekontua 14.769.731 pta.koa izan da. Abuztuaren 23tik 28ra bitartean Udalak antolatutako jai egitarauaren aurrekontuaren zatirik handiena Baserritarren eguneko antolaketa ordaintzeko erabili da. Beste gastu garrantzitsua, profesionalen pilota partiduek eta derrigorrezko aseguruak ekarri dute. Azken hauen barruan zezenen eta su artifizialen aseguruak daude eta istripurik gertatuz gero, heriotza eta ezintasuna kubritzen dute. Gaueko kontzertuei dagokienean, Udalak hiru ekitaldi antolatu zituen Madalan abuztuaren 24an, 25ean eta 27an. Hauetatik bat, Gazteen Eguneko rock kontzertua izan zen. Plaza Handian lau talde egon ziren, 23an, 26an, 27an eta 28an. Musika ekitaldien artetik Gazteen Eguneko hiru taldeen kontzertua izan zen garestiena. Datorren urtera begira, Plaza Handian jaietako egun guztietan zerbait antolatzeko asmoa du Udalak, "baina orain baino inbertsio handiagorik ezin da egin, beraz, talde gehiago baina merkeagoak ekarriko ditugu". Jarraian emango ditugu Hazienda Batzordearen txostenaren arabera jaietako zenbait ekitaldiren zenbeteoak:

| | |
|--|-----------|
| ■ Aseguruak | 1.418.425 |
| ■ Solteko Dantza Txapelketa | 431.000 |
| ■ Aizkolari Txapelketa | 1.285.000 |
| ■ Baserritarren Eguna | 538.000 |
| ■ Buruhandi konpartsa | 250.000 |
| ■ Txaranga | 740.000 |
| ■ Etxaniz Memoriala | 420.000 |
| ■ Lau berbena, hiru rock talde eta megafonia | 1.760.000 |

Gillermo Garate izendatu dute DEBEGESAko lehendakari

DEBEGESA Deba Beheko garapen ekonomikorako elkarte da eta bailara osatzen duten zortzi herrietako kideez osatzen da. Orain bi aste elkartu zen administrazio kontseilua eta bertan Guillermo Garate, Elgoibarko alkatea, hautatu zuten lehendakari. Kepa Astigarraga (PNV), Mutrikuko alkatea izango da lehendakariordea eta Antxon Zubiaurre (PNV), Mendaroko alkatea, idazkaria. DEBEGESAren helburua proiektu ekonomikoak bultzatzea da, batez ere industria eta zerbitzuen mailan ahalik eta garapen ekonomikorik handiena lortzeko.

Maiatzaren 28an izan ziren hauteskundeetan EAJ-PNV Deba Behea osatzen duten zortzi herrietako bostetan nagusitu zen. Bide horri eutsiz, alderdi politikoa honen

esku geratu dira eskualde mailako hainbat instituzioren lehendakari-tzak. Jose Luis Aranbarri "Amatiño" izendatu zuten Deba Beheko Mankomunitateko lehendakari eta Antxon Aristi Badesakoa. PSE-EEk ez du begi onez ikusi Guillermo Garateren izendapena, izan ere, beraien ustez DEBEGESAren lehendakari Iñaki Arriolaren, Eibarko alkate denaren esku geratu behar baitzen.

Ingurugiro jardunaldiak

Bestetik, DEBEGESAko antolatuta, Ingurugiroarekiko Heziketa Jardunaldia burutu da gaur, hilak 15, egun osoan zehar Erreminta Makinaren Institutuan. Bertan hizlari modura izan da *Teknimap Ambiental* enpresako arduraduna, Migel Sánchez elgoibartarra.



● ● ● ALDERDI EGUNA 95 ● ● ●

EAJ-PNVk jeltxurak eta lagun guztioi Salburua/Gasteizen, irailaren 17an, ospatuko den Alderdi egunerako gonbidatzen dizue. Autobusak antolatu ditugu.

AKANPADA: EGik Elgoibarko gazte guztiak gonbidatzen ditu hilaren 15, 16 eta 17an egingo den akanpadara. Honetarako autobusak doan izango dira.

Kasu bietan izena emateko: Batzokiko taberna 74 08 21/Foruen plaza 74 27 44

Udaletxea

- Foruen enparantzan kokatzen da Udaletxea. San Bartolome elizak, frontoiak eta inguruko etxeek plaza barroko bikaina osatzen dute.
- Udaletxea oinplano angelu zuzena duen eraikin barrokoa da eta herriko funtzio kudeatzailea du.
- Teilatua lau isurkitara eratua dago, euskal-udaletxe motara egokitua.
- Fatxada nagusia kare harrizko harlanduz eraikia dago eta beheko solairua, lehen solairua eta ganbara ditu. Beheko oina bost arkuz arkupetua dago eta Santa Ana kalera ematen duen alboa irekia da.
- Hiru sarrera ditu, erdikoa zabalagoa dena, nagusia da. Oin nagusian dekorazio barroko guztia biltzen da. Bost baogune daude balkoi eta guzti, erdiko balkoia jarraitua izanik. Guztiek barandila dute burdin forjatuz landua. Erdiko balaustreak, berriz, elementu erradial bat du erdian. Balkoietako atea leher bihurtuz inguratuak daude bola handi batzutan amaituz. Ate-zangoek, kurbak eta kontrakurbak dituzte kiribilen bukaeran. Alboetako ateen frontoiak kurbatuak eta hautsiak dira eta maskor banaz dekoratuak.
- Fatxadaren ertzeetan behetik gora, bi solairuetatik barna eta erlaizaraino pilastrak hedatzen dira. Teilatua, teilategal zabalaz eta modiloiez

apaindua, 1754. urtean amaitu zen. Fatxada frontoi klasiko (Palladioren estilokoa) txiki batez dekoratua dago. Bertan, Errege Katolikoek 1498.ean emandako armari bat aurkitzen da, elementu heraldikoz osatua.

- Atzeko aldeko solairu nagusian galeria bat dago erdi puntuko hiru arku itsuz osatua. Barneko aldean, bi eskailera atalen bidez, solairuen arteko bulego ezberdinak banatzen dira.
- Estilo aldetik barrokoa da, XVIII. mendekoa.
- 1964ko urtarrilaren 17an, Hezkuntza eta Zientzien ministeritzak probintzia mailako kondaira-arteeko monumentu izendatu zuen. 1984ko uztailaren 17an, berriz, nazio mailako monumentu izendatu zuten.
- Lehen plano egilea Sebastian Lekuona izan zen. Inazio Ibero azpeitiarrak hego aldeko galeriaren eta teilategalaren planoak egin zituen 1744an. Frantzisko Iberok, Inazioaren semeak, armariaren eta alboetako adornoen diseinuak egin zituen 1753an.

PELLO
ARRIETA



Jose Antonio Estibariz (1930-1983)



- Tolosan jaioa, 1930eko ekainaren 15ean.
- Ezkondu berritan Sigmaria etorri zen lanera, txapisteriara.
- Laster aldatu zuen lanbidea. Errotulista hasi zen bere kontura; herriko zenbait dendak haren errotuluak dituzte oraindik. Garai bateko Deba bailarako kamioietako errotulu gehienak hark margotutakoak ziren.
- Pintura artistikora ere emana, erakusketa batzuk egin zituen.
- Autopista egiterakoan desagertze-ar zeuden baserri asko pintatzeko enkargua egin zioten baserriarrek.
- Antzerki zale izanik, bere kontura izan ziren Elgoibarren egindako antzerki-lanen dekoratu eta marrazkiak. "El Caserio"renak, esaterako.
- Parrokiako kaperan dauden marrazkiak eta letrak egin zituen. Bospasei aldiz irabazi zuen jaietako kartel esku-programen lehiaketa.
- Gizon alaia eta tolosar zintzo gisa, "karnalero" itzela zen.
- 1983ko uztailaren 9an hil zen.

Cordon, Vilarchao, c.b.

DEKORAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke, 7 beheka. Tel.74 28 74 - 74 05 70



MEKANOSA

Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MOTZAK

Ehiza Txapelketa San Migeleko Mendibeltzun

La Unión Ehiza eta Arrantza Elkartek San Migeleko Mendibeltzun bazkide eta herritarrentzako faisai txapelketa antolatu du hil honen 23an. Beharrezkoa izango da ehiza-baimena, Federazioko lizentzia eta aseguruia edukitzea. Partaide bakoitzak laguntzaile bana eraman beharko du eta goizeko 8etan La Unión-en aurkeztu beharko dira. Izena emateko egunak hilaren 18, 19, 20 eta 21a izango dira, arratsaldeko 8etatik 8,30ak arte. Izen-ematearen zenbatekoa 2.500 pta.koa da bazkideentzat eta 4.000 pta. gainontzekoentzat.

Igande honetan Besaide eguna Arrasaten

Hil honen 17an, igandea, Besaide Eguna ospatuko da Arrasaten. Euskal Herriko Mendizaleen Federazioak antolatutako egun honetan, urtean zehar hildako mendizaleak omenduko dira. Ospakizunak goizeko 10,30etan hasiko dira txalapartarekin mendizaleei harrera eginez. Ondoren, meza izango da eta segidan Pako Iriondoren hitzaldia. Eguerdian Arrasateko dantzariak eta bertsolariak arituko dira eta bazkalostean erromeria izango da. Morkaiko Mendizale Elkartek Besaidera joateko gonbidapena zabaldu nahi du bazkideen artean, aurten Morkaikoko kide izandako elgoibartar asko hil baitira.



Arkaitz Egaña:

"Plazan lasai egotia da inportantiena"

■ **Arkaitz Egaña ala Mintxetako haurra?** - Lagunek Egaña esaten diate baina plazan Mintxeta izezez naiz ezaguna.

■ **Mintxetakoa izanda, ez da harritzekoa herri-kiroletan aritzea, ez?** - Familixan osaba eta aitxa ibili diaz herri-kiroletan, eta orain ni. Osaba harri-jasotzen ibilitakua da eta orain ni entrenatzen nau eta aitxak trontzan eitzen dau.

■ **Zenbat urterekin jaso zenuen lehen harria?** - Zortzikin, 15 kiloko zilindrua zan. Harrixari heldu nion, baina leneguetan ezin izan naban jaso. Osabak ikusi nindun eta aprobia ein bihar gendula esan zian. Berehala hasi nitzan harrixekin eta oin lau urte daramatzat.

■ **Zein harrirekin ibiltzen zara?** - Zilindruakin eta kubikuakin. Gusturen? Zilindruakin hobeto, urte gehixao daramat eta.

■ **Zenbat pisu jasotzen duzu gehienez?** - 36 kiloko zilindrua.

■ **Markarik?** Bi minututan 24 jasoaldi ein ditzut zilindruakin.

■ **Euskal Herrian zenbat zaudete?** - Ni bezain gazteak hiru edo lau. Mailaz danak gabiz antzera.

■ **Zer entrenamendu egiten duzu?** - Astian behin edo birritan entrenatzen dot osabakin. Lenengo beroketak eitzen



ditut eta gero jasoaldixak harrixekin. Dagoeneko teknika nahiko dominauta dakat.

■ **Zer da erabakiorrena: indarra, teknika, kontzentrazioa...**

- Lasai egotia, batez ere. Ni bastante nerbiosua naiz. Lenengo exhibizuan oso nerbiosoa nauan, oin dala hiru urte San Roken izan zan.

■ **Jairik jai aritzen zara?** - Bai, uda partian, batez ere. Honez gero, ixa plaza gehixenetan ibilitxa nao. Rekuerdo berezixa dakat aurtengo Mendaroko jaixena. Nahiko ondo ibili nitzan han jaso nabalako zilindrua 24 aldiz. Negua nahiko lasaia da eta udaberrihan berriro hasten gera plazarik plaza.

■ **Txapelketetan hasia zara?**

- Ez, 16 urterarte ez dabe lagatzen, igual aurrerao nire adinerako txapelketak jarriko ditzue.

■ **Egirekin bikote zara?** - Bera juden dan lekuetara juden naiz. Eredu bihurtu da Egi, nere osabak entrenatzen deu haura ere. Beragan fijatzen naiz, asko gustatzen jata bere estilua.

■ **Ona al da?** - Bai, oso ona.

- Adina: 12
- Mahoizko prakak ala txandala? Txandala
- Gogoko duzun beste herri-kirol bat? Trontza
- Trikitixa ala bakalaoa? Bixak.



DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

ERREFORMAK
FATXADAK ETA TEILATUAK
OBRAK OROKORREAN

XABIER
ILEAPAINDEGIA

*Eskatu
eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97



laz baino talde bat gutxiago dauka Elgoibarko Eskubaloiak

Lau ekipo daude Elgoibarko Eskubaloi Taldearen plantilan, iaz baino bat gutxiago. Nesken senior taldea da desegin dena jende falta dela eta. Kadeteen mailan nesken eta mutilen taldea dago, eta jubenetan eta seniorretan mutilen taldea bakarrik. Dagoeneko entrenatzen hasiak daude lau taldeak, irailaren lehen astetik hain zuzen. Aurrendenboraldiari dagozkion lehen partiduak asteburu honetan eta datozen asteburuan jokatuko dituzte,

elkarteak urtero antolatzen duen Elgoibar Hiria Eskubaloi Txapelketa burutuko baita. Larunbatean arratsaldeko 4etan hasiko dira partiduak eta igandean 10,30etan. Txapelketa hiru talderen artean jokatzen da, lehiaketa kutsurik gabe. Kadete mutilek beste triangular bat jokatuko dute Bergaran hilaren 30ean eta liga urriaren 12an hasiko dute talde guztiak seniorrek ezik; hauek urriaren 1ean jokatuko dute lurralde-ligako lehen partidua.

MERITUAK

Kadete neskek:

- Euskadiko txapeldunak 93/94
- Espainiako bosgarrenak 93/94
- Gipuzkoako Ligako eta Kopako txapeldunak 94/95

Kadete mutilak:

- Euskadiko Txapeldunak 94/95
- Espainiako bosgarrenak 94/95

Jubenil mutilak:

- Gipuzkoako txapeldunorde 94/95



SENIORRAK: Ezkerretik eta atzetik hasita: Iñigo Astigarraga, Josu Juaristi, Gorka Iriondo, Oier Gurrutxaga eta Ales Arrieta (entrenatzailea). Makurtuta: Juan M. León, Patxi Aranberri, Eduardo Fidalgo, Oskar Uria eta Jon Zubiaurre. Falta dira: Migel A. Arozena, Iñigo Arriola, Gorka Muruamendiarrak, Eñaut Oiarzabal, Jon Urizar, Zigor Esnaola, Luis A. Bellota eta Iñigo Salegi.



JUBENILAK: Ezkerretik eta atzetik hasita: Patxi Aranberri (entrenatzailea), Ibai Gurrutxaga, Jon Ulibarri, Esteban López, Iker Soraluze eta Aitzol Garmendia. Makurtuta: Jon Gurrutxaga, Arkaitz Sánchez, Javi Bellota, Iñigo Altuna eta Joseba Eugi. Falta dira: Aitor Garate, Ibon Garate, Diego Luque eta Iker Diego.



KADETE NESKAK: Ezkerretik eta atzetik hasita: Leticia Astray, Silvia Vazquez, Ariane Peñaranda, Patricia Rodriguez, Irma Aldazabal, Ainhoa Aduriz, Ainhoa Lendinez eta Vanessa González. Erdian: Lore Agirreazaldegi, Irati Uriguen, Amaia Jauregi, Ane Agirregomezkorta, Miren Beitia eta Ibona Loiola. Aurrean: Idoia Oiarzabal, Ainhoa Torres, Leire Dieguez, Lore Bereziartua eta Leire Agirrebeña. Falta dira: Julene León, Lorea Gabilondo eta Ales Arrieta (entrenatzailea).



KADETE MUTILAK: Ezkerretik eta atzetik hasita: Unai Arrieta, Manu Ibarluzea (ez dago taldean), Xabi Uribeetxeberria, Egoitz Gurrutxaga, Gillermo Berdonces, Jonathan Martín, Asier Etxaniz eta Gorka Landaburu. Aurrean: Jose Sánchez (ez dago taldean), Josu Perea, Kepa Mendikute, Julen Hernandez, Ander Zabala (ez dago taldean), Ander Goikoetxea eta Jon Aierdi. Falta dira: Karmel León, Beñat Leibar, Josu García, Iker Astigarraga, Oier Uriarte eta Joxean Hidalgo (entrenatzailea).

Spielberg-en Casper filmeak irekiko du Herriko Antzokiko zine sasoia

Asteburuan ekingo dio Udalak berriro Herriko Antzokiko zine emanaldiei. Emankizun egunak eta orduak ohikoak izango dira, astearteko ikuslearen eguneko saioa 22.00etara aurreratu delarik. Egun honetan sasoi kanpoko pelikulak emango dira, eta asteburuan sasoi-koak. Sasoi-ko pelikula bat alokatzea 60.000 pta. eta 70.000 pta. inguru kostatzen zaio Udalari eta ikuslearen eguneko pelikulak berriz, 30.000 pta. tik 40.000 pta. bitartean dabilta. Prezio aldetik gauza guztiek gora egiten dutenez eta Udal Kultur Teknikariaren esanetan inguruko herrietako zine-


etako prezioekin parekatzeko asmoz, 50 pta. garestituko da aurtentzinearen prezioa. Nagusien saioen sarreraren zenbatekoa hortaz, 400 pta.koa izango da. Haurren saioaren prezioa bere horretan geratuko da eta ikuslearen egunean 300 pta. ko kobratuko dira.

Datozen pelikulak

15, 16, 17, 18 **Casper**
 19 **Presa de la Secta**
 22, 23, 24, 25 **California**
 25, 26 **El libro de la selva**
 29, 30, 1, 2 **Dos policías rebeldes**
 2, 3 **Un indio en París**



■ ■ Asteburuan hasiko da zinea Herriko Antzokian.



ETENGABEKO FORMAZIO ETA ERREZIKLAI PROGRAMA

Egitasmo honen baitan, teknikarien kualifikazio maila hobetu nahian, I.M.H.k 1995. urteko bigarren sei hilabeterako jarraian aipatzen diren kurtsoak jarriko ditu martxan:

| DISEINUA | HASIERA DATA | IRAUPENA | METROLOGIA | HASIERA DATA | IRAUPENA |
|---|--------------|----------|--|--------------|----------|
| ■ CADen Sarrera. Plano arruntak | (95. 10. 02) | 40 | ■ Oinarrizko Egiaztapena | (95. 10. 02) | 40 |
| ■ Planuen Lanketa eta CADen Pertsonalizazioa .. | (95. 10. 23) | 40 | ■ Tresneria Berezien Bidezko Egiaztapena | (95. 10. 23) | 50 |
| ■ CAD 3D. Solidoen Sorkuntza | (95. 11. 13) | 30 | ■ Koordinaden Bidez Neurtzeko Makinak | (95. 11. 16) | 40 |
| ■ Fabrikazioko Planoen Ulerkuntza | (95. 10. 09) | 25 | ■ Laser Interferometria Bidezko Neurketa | (95. 09. 25) | 40 |
| ■ Bistak eta Krokizazioa | (95. 09. 25) | 40 | | | |
| AUTOMATIKA | | | KALITATEA | | |
| ■ Mekanikoentzako Elektrizitate Industrial..... | (95. 11. 22) | 50 | ■ Normalizazioa eta Ziurtagina. | | |
| ■ Mekanikoentzako Eskema Elektrikoen | | | UNE/EN/ISO 9000 Arauetarako Sarrera | (95. 12. 11) | 30 |
| Ulerkuntza | (95. 11. 06) | 15 | | | |
| ■ PLC baten Oinarrizko Programazioa | (95. 09. 25) | 45 | PRODUKZIOA | | |
| ■ Neumatika Industrial..... | (95. 10. 02) | 60 | ■ CNC Tornoen Programaziorako Sarrera. | (95. 10. 16) | 40 |
| ■ Eskema Hidrauliko eta Neumatikoen | | | ■ CNC Fresagailuen Programaziorako Sarrera | (95. 10. 16) | 40 |
| Ulerkuntza | (95. 11. 13) | 20 | | | |
| ■ Hidraulika Industrial..... | (95. 11. 02) | 60 | INFORMAZIOA: | | |
| ■ Sistima Hidraulikoen Instalakuntza, | | | ERREMINTA MAKINA INSTITUTUA Tel.74 41 32 Fax.73 41 53. San Roke Auzoa 1 ELGOIBAR | | |
| martxan jartzea eta mantenua | (95. 11. 30) | 40 | | | |

1.200 pertsona bildu ditu egunero aire libreko zine



Datuak nahikoa esanguratsuak dira. Ongarri Zine Klubeko kideek emandako datuen arabera, inoiz baino jende gehiagok ikusi du zinea aurtengo udan Plaza Handian, 20.000 ikuslek hain zuzen. Emankizun edo saio bakoitzean batazbeste 1.200 pertsona egon dira zinea ikusten. Gainera ez elgoibartarrak bakarrik, inguruko herrietatik ere, Debatik, Sorluzetik, Bergararik... etorri dira Elgoibarrera zinea aire librean ikustera. Begibistan dago arrakasta erabatekoa izan dela.

Pasa den larunbatan “Un mundo perfecto” pelikulara emankizunarekin amaitu zen Udalak eta Ongarri Zine Klubak antolatutako aire libreko zinea “Aire libreko zineak Plaza Handian berpiztu egin du, eta zuzen bizitasuna eman dio”. Baieztapen honek datuek baino garrantzi handiagoa du Ongarrikoentzat. “Aire libreko zinera joatea, zinera joate hutsa baino zerbait gehiago da, ekitaldi sozial moduko zerbait dela esango genuke”. Dena den, datuak kontuan hartzekoak dira. Mila eta berrehun ikusle saio bakoitzeko eta hogeita mila ikusle udako osoan. Udalak jarritako egurrezko 800 aulkiei, plastizkozko aulkiei, jendeak etxetik ekarritako jarlekuak, tunbonak eta Plaza osteko tabernetatik ekarritako eserlekuak gehitu behar zaizkie.

Eguraldia ondo portatu da aurten. Ez da saio bat bera ere bertan behera laga behar izan euriagatik. Eguraldia ez da fin ibili den bakarra. “Abuztu bukaeran eta irailean, hotzaren freskura igarri den saioretan, jende ugari pelikula bukatu arte aguantatu du eta hori benetan estimatzen da” diote Ongarrikoek. Horrez gain, “saio amaieran bakoitzak bere aulkia jasotzea ere eskert-



Aurrera begira hobekuntza ugari egin beharko liratekeen iritzikoak dira Ongarrikoak. “Uda honetan pantaila puskatu egin dute pilotan jolasten ari ziren haur batzuk. Proiektzio kabina ere horrela ez dago ondo, aulkien gogortasunaren arazoak ere konponbidea behar du. Soinuak potentzia badu baina kalitatea falta zaio eta ibai aldetik datozen aire korronteak ez pasatzeko estalki bat jartzeko ideia bat ere badago. Baina guzti hauek ideiak baino ez dira eta ideiak gauzatzeko Udalak ematen duen aurrekontuaren zenbatekoa

Datu teknikoak

- **Emanaldiak:** 17
- **Filmazio sistema:** 35 mm
- **Soinu potentzia:** 2.000 watio
- **Ikusle kopurua eguneko:** 1.200
- **Ongarri osatzen dutenak:** Iñaki eta Arrate San Martin, Iñaki Agirre eta Andres Odriozola.

Bekak

Euskal Herriko Unibertsitateak 95-96 ikasturterako 212 **LANKIDETZA BEKA** konbokatu ditu. Bekaren zenbatekoa 350.000 pta.koa izango da. Epea: irailak 29.

NEW YORKEN SOLOMON R. GUGENHEIM MUSEOAN PRESTATZEKO LAU BEKA. Arloak: Erakusketen antolaketa, Erregistroa, Argitalpenak eta Ardura Saila. Baldintzak: titulazioa (Artearen Historiako lizentziatura, Arte Ederrak, Bibliotekologia...) eta ingelesa ondo jakitea. Epea: urriak 10.

95-96 IKASTURTEAN UNIBERTSITATE MAILA ETA GOI-MAILAKO beste ikasketak batzutarako (dantza, arte dramatikoa, arte plastikoa, diseinu ikasketak, soinketa, turismoa...) beka deialdia. Epea: urriak 16.

Lehiaketak

Tene Mujika ipuin lehiaketaren XIII. edizioa antolatu du Debako Udalak. Gaia: librea. Idazlanek 6-30 orri bitartean izan behar dute. Epea: Azaroak 28.

AUZOLANDEGIAK

Alaitz Bastida: "Lehenengo lana dutxia eixia izan zan"

Joan den astean udalekueri buruz hitzegin genuen orrialde honetan. Oraingo honetan, berriz, 18 urtetik 26 urtera arteko gazteek udan izan dezaketen beste plan berezi bati buruz arituko gara. Izan ere, urtero auzolandegiak antolatzen dira, Euskal Herrian, Estatuan zehar, Europan, Ameriketara... Toki asko eta asko izaten dira eta horietan lan ezberdinak eginez, bizpahiru aste igaro eta esperientzia berriez gain, lagunak egiteko aukera paregabea egoten da. Alaitz Bastida 18 urteko elgoibarta gazte bat da. Berak, aipatutako auzolandegien berri entzun zuen behin irratian eta eskaera luzatu zuen. Uztailean, 20 egun pasa ditu Caceresko herri txiki batean.

- Zuk aukeratu al zenuen tokia?

- Ez, izena ematerakoan zozketa egiten dute eta tokatzen zaizun zenbakiaren arabera hainbat toki dituzu aukeratu. Ni Caceres probintziako Cadalso herrian izan naiz. Guztira 30 neska-mutil egon gera, 18 eta 26 urte bitartekoak baina gehixenak 18-19 ingurukoak.

- Nolatan joan zinen?

- Zerbait berrixa egiteko gogua nakan. Ez naban nahi uztaile Elgoibarren pasatzia eta auzolandegixena entzun nabanean irratian segiduan erabaki naban apuntatzia.

- Doan da edo zerbait ordaindu behar zenuen?

- Bidaia nere kontura zan oso osorik eta horrez gain beste 8.000 pta. ere pagatu bihar dia.

- Zein zen zuen lana?

- Granja bat eta inguru guztia hobetzia, etxia, ikuilua.. Etxian sukaldia



bakarriz zauan. Lo kanpinetan eitzen gendun. Denbora libria ere bageneukan pistinara juteko. Arratsaldian tailerrak eitzen genduzen. Argazkilaritzan argazki kamara bat egin gendun zapata kaja batekin, eskulanetan kamisetak tintatzen ikasi gendun, naturan orientazioari buruzko gauzak...

-Dutxak zuek egin zenituzten, ez?

- Bai. Gure lehenengo lana dutxa bat, ur hotzak, eta letrinak eixia izan zan. Hala ere, normalian kumuneko biharrak eixera hor zihar juten zinan, mendi aldera, atxurra zin zulu egin eta gero lurrakin tapatuz.

- Anekdotarik?

- Askok Zapatu gabian herrira bajatzen ginan juergatxo bat eixera. Normalian furgonetan eitzen gendun biajia baina behin batzuk bueltia oinez egin gendun eta galdu egin ginan. Berez ordu erdixan eitzen zan bidia 3 ordu t'erditan ein gendun, lo ere bidian... Baina oso ondo, barre mordo bat egin gendun.

- Datorren urtean?

- Ahal izanez gero berriz horrelako toki batera. Jende asko ezagutzen da eta esperientzia benetan ona da, gauza berriak ikusi, gure bizitza erosotik urrutira, lan eixera ohituta... Han ezagututako batzuk komentatu dogu datorren udan batera jutia norabaitxera baina ez dakit posible izango dan.

Salerosketak

OPEL KADET GSI 2.0
txuria salgai. SS-4478-AD,
Oso egoera onean.
☎ 75 50 33

KOTXE INGLES BAT
saltzen da 23.000 pta (Kuna,
kotxe estalkia eta bainera
oparitzen dira)
☎ 75 61 71

ESKOPETA REPETIDORA
BAT erosiko nuke. P.
Beretta edo antzerakoa.
☎ 74 15 35 Alberto

MTB Camondale 94 T. 48
XTR mtor bat saltzen dut.
☎ 75 62 43 (1,30-15,00)

KANPING kanadiar bat
SALTZEN DUT. 5-6
lagunentzat. Egoera
onean.12.000 pta.
☎ 74 11 30 Rosa

Etxebizitzak

2 edo 3 gelako etxe bat
alokatu nahi nuke.
Amueblatu gabe eta
igogailuarekin.
☎ 74 21 99 Txaro
Bulego orduetan

ETXEBIZITZA BAT
SALTZEN DUT EULOGIO
ESTARTAN. Egoera oso
onean dago.
☎ 74 10 46 Maite
(Gauz 10etatik 11etara)

Ingelesko irakasle bat naiz
eta alokairuan dudan
ETXEA KONPARTITUKO
NUKE
☎ 74 24 99 Antonia

Alcoceber-en
APARTAMENTU BAT
daukat alokatzeko (irailean)
☎ 74 22 08

Ingelesko irakasle batek
LOGELA BAT eta pentsio
osoa edo sukaldean ibiltzeko
aukera nahi ditu.(9 hilabete)
☎ 42 84 06 / 74 02 36
Richard

Lana

Eibarren
KONTSULTARAKO
PRESTATUA DAGOEN
LOKAL BAT alokatzen da.
☎ 79 85 24 Isabel

Ezin dugulako atenditu,
LOGOPEDIA ZENTRUA
alokatzen da Eibarren.
☎ 79 85 24 Isabel

ANDRA BAT BEHAR DA
etxeko lanak egiteko eta bi
persona zaintzeko.
Esperientziarekin eta
euskalduna. 50-60 urte
bitartean.
☎ 74 29 30 Mari Karmen
Gauko 9etatik aurrera

Emakume batek ETXEKO
LANAK EGIN,
NAGUSIAK ZAINDU ETA
ABAR... egiteko prest dago
☎ 75 62 57 Mari Karmen

Lau urteko UME BAT
ZAINZTEKO PERTSONA
BAT behar da. Arratsaldean
16,00-20,30 eta larunbatean
8,30-13,00
☎ 74 12 26 Lorea

Ikasbat-en zerbitzua amaitu
ondoren KAFETEGI
ZERBITZURAKO
PROPOSAMENAK
JASOTZEN DIRA.
☎ 74 41 32 IMH

Mendaroko baserri batean
GAIXO BAT ZAINZTEKO
andra bat behar da egunean
ordubeterako.
☎ 15 04 41

Partikularrak

MARRAZKI TEKNIKO
ETA DIEDRIKO
KLASEAK ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

MATEMATIKA, FISIKA
ETA KIMIKA klaseak maila
guztietan ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 10 27 82
Marian, gauko 9,30etatik
aurrera

FRANTSESEKO
KLASEAK ematen ditut.
Maila guztiak
Enpresetarako itzulpenak eta
interpretazioak ere bai.
☎ 74 04 59 Jaqueline
(13,00-14,30 eta gauz
20,00etatik aurrera)

Bestelakoak

BETAURREKO BATZUK
galdu nituen Santa Ana eta
Ubitarte inguruan, irailaren
9an, arratsaldeko 8ak eta
8,30ak bitartean. Aurkitu
dituenak mesedez eraman
Udaltzaingora

Uztailean URREZKO
KATEA ETA MEDAILA
GALDU NITUEN. Inizialak:
AGI 8-5-94
☎ 74 22 37

8 urteko mutiko bat naiz eta
abuztu haseran Xakobeoko
LLABERO BAT GALDU
nuen. Balio handia du
niretzat. Norbaitek aurkitu
badu mesedez deitu.
☎ 74 30 33 Asier

PREMIAZKO TELEFONOAK



OSASUNA

Anbulategia:
Larrialdiak.....461111
Txanda hartzeko.....743354
Planning-a742950
Alkoholiko Anonimoak..740385
D.Y.A (anbulantzia) ..464622
Gurutze Gorria.....743864
Mendaroko Ospitalea756264
Drogomenpekotasun Z.741008
Odol Emailak743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442
PESA (Eibar).....102131
Taxi geltokia.....740898

UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366
Kirol Zerbitzua744415
Kultura Zerbitzua.....742158
Mendaroko Udala ...756100
Ongizate zerbitzua...743736
Udaletxea741050
Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142
Elgoibarko Izarra.....741626
IMI.....741196
Kontsumo Bulegoa ...743088
Liburutegia743525
Musika Eskola742145
Mintxeta744315
Parrokia.....740842
Polikiroldegia741361
Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296
Zaharren Biltokia.....740526

IKASTETXEAK

Herri Eskola74 08 79
I.M.H.74 41 32
Instituta74 02 67
Ikastola74 44 41
L.H.I.....74 44 80
Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12
El Diario Vasco74 40 73
El Mundo74 27 59
El Correo Español...74 10 82
Egin.....10 84 21
Deia74 11 57
Zazpiki74 34 74

15 OSTIRALA

18,30 ODOL ATERALDIA

✓ P.M. Urruzuno 8an

22,15 ZINEA

"Casper"

✓ Herriko Antzokian

16 LARUNBATA

22,15 ZINEA

"Casper"

✓ Herriko Antzokian

17 IGANDEA

16,30-19,30-22,15 ZINEA

"Casper"

✓ Herriko Antzokian

18 ASTELEHENA

18,00 MARRAZKETA IKASTAROA

✓ Ubitarte Plazan

Antolatzailea: Egur Tailerra

Urriaren 5era arte

22,15 ZINEA

"Casper"

✓ Herriko Antzokian

19 ASTEARTEA

22,15 ZINEA

"Presa de la secta"

✓ Herriko Antzokian
(Ikuslearen eguna)

22 OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Kalifornia"

Herriko Antzokian

txandak

FARMAZIAK:

| DATA | EGUNEZ | GAUEZ |
|-----------------|----------|--------|
| 16, larunbata: | Yudego | Yudego |
| 17, igandea: | Yudego | Yudego |
| 18, astelehena: | Bidasolo | Escala |
| 19, asteartea: | Bidasolo | Escala |
| 20, asteazkena: | Bidasolo | Escala |
| 21, osteguna: | Bidasolo | Escala |
| 22, ostirala: | Bidasolo | Escala |

FARMAZIEN ZUZENBIDEAK:

Escala: Rekalde 1, Soraluze
Tel. 75 16 38

OKINDEGIA:

17, igandea: FOTERO

ZINEA

Casper

Produkzioa: Steven Spielberg

Etxe zahar bateko sorginak uxatzeko kontratatzen dituzte Harvey dokotorea eta honen alaba Kat. Casper eta bere hiru osabak bizi diren etxeak badu ondo gordetako sekretu bat. Balio handiko altxor bat omen dago bertan. Etxearen jabe berriak hiru fantasmak etxetik bota beharko ditu altxorra lortu nahi badu. Fantasmak ondo baino hobeto pasatzen dute etxe guztiak izutzen baina ez ordea Casper-ek. Honek lagun berri bat topatuko du: Kat.



Presa de la secta

Zuzendaria: J.F. Lawton.

Antzezleak: Christopher Lambert, John Lone, Joan Chen.

Paul Racine (Christopher Lambert) Nagoya hiri japoniarrean dagoela Kirinaren (Joan Chen) heriotzaren lekuko izango da. Ninjen eskuetaetik ihes egitea lortzen du, baina herrialde ezezagun batean dago zauritua eta bakarrik. Neska hil zuen ninja atzetik segika dauka eta honengandik ihes egiten lagunduko dion samurai batekin topo egiten du.





KENSINGTON

Pedro Muguruza 8. ELGOIBAR TEL- FAX 74 02 36



GIPUZKOAKO
HIZKUNTZ IRAKASLE
ELKARTEKO BAZKIDE

CAMBRIDGE EXAMINATIONS
CENTRE ES-438

*Zorionak 95eko ekaineko Cambridge
azterketetara aurkeztu ziren ikasle guztiei.*

Emaitzak

Proficiency % 100ak gainditua

First Certificate % 100ak gainditua

P.E.T. % 98ak gainditua

Zorionak!




**HIRUGARREN ADINERAKO PRODUKTUEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA**



LANDETA AUZOA. 20730 AZPEITIA. GIPUZKOA.
TEL. 81 59 03 - 81 27 76 FAX. 81 35 43
(Polikiroldegi parean)

- OHE ARTIKULATUAK
- BESALKI BEREZIAK
- ZAURIEN AURKAKO KOLTZOIAK
- SUSPERRALDIETARAKO
- HIRUGARREN ADINERAKO
- EZINTASUN FISIKOETARAKO
- AKATS FUNTZIONALETARAKO
- ARNAS ARAZOETARAKO



BAINURAKO LAGUNTZA
MOTA GUZTIAK.
PERTSONAK
MUGITZEKO GRUA.

OSO ERRAZA DA

2 + 2 =

ERANTZUNA DUGU